

ZEBARRI

etxebarriko euskaltegiako ikasleek egina

2011ko
negua

Zorteko gara !



Loteria Etxebarrin eta gainera...

*Euskarazko hiztegiak, Euskaltegiaren historia laburra
Horoskopoa, Denbora-pasak ...eta abar*



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



AURKIBIDEA

Zorteko Gara!

Gorka Garcia Kukullaga taldeko entrenatzailea eta loterian saritua 3

Gure Euskaltegi Txikia

Etxebarriko Euskaltegiaren historia txikia 4-5

Etxebarriko Soinu Banda 6-7

Etxe Berdeak 8

Kultur Gomendioak

Musika 9

Literatura 10

Zinema eta antzerkia 11

Bizkaieraren Txokoa

Bizkaiko euskalkian sakontzeko atala 12-13

Hitzen Biltoki

Euskarazko hiztegiei buruzko monografikoa 14-15-16

Nor da Olentzero? Non eta Norekin bizi da? 17

Negurako Aholkuak 18

Bitxikeriak 19-20

Horoskopoa 21-22

Negurako Menua 23-24

Denbora-pasak 25-26-27



ZEBARRI aldizkaria zure etxean doan jaso nahi baduzu
idatzi emailaz etxebarri@euskalnet.net helbidera

Zebarri aldizkaria honako erakundeei esker gauzatu da:



YLIBARRI
EUSKALTEGIA



etxebarriko
EUSKALTEGIA



BFA DFB
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia
Kultura
Salta
Departamento
de Cultura

Zorteko gara!

Gorka García [Kukullaga taldeko entrenatzailea eta loterian saritua]

Etxebarri Euskaltegiko 4.

urratseko ikasleok Kukullaga

taldeko entrenatzaile Gorka García

elkarriketatu dugu. Oraingo honetan,

ordea, ez da eskubaloi taldearen berri

izateko. Izan ere, denok jakingo duzue,

Gorka O.N.C.E fundazioak zozketatzen duen

11-11-11 sariaren irabazleetako bat izan da

eta zerbait gehiago jakin nahi genuen. Hona

hemen egin genion elkarriketa:



Zenbat diru tokatu zaizu?

Niri 3.000 € egokitu zaizkit, baina zorte handia izan dugu Kukullagakook eta guztira zozketak 1.027.000 € utzi du Etxebarrin. Izan ere, taldeko bati 1.000.000 euro egokitu zaio. Beste zortziri, niri bezala, 3.000 €-ko saria suertatu zaio.

Non erosi zenuen, bada, txartel saritua?

Kontua da Estebanek, Yasminaren aita (taldeko jokalaria bat da Yasmina), kupoiak saltzen zituela eta, beraz, badaezpada ere, hartu genuen.

Zein izan da suertatu den zenbakia?

Zenbakia baino, garrantzi handiagoa du seriearen kontua. Hau da, saritutako seriea 18.a izan zen. Nirea 15.a zen. Imajina ezazue txartela apur bat geroago erosi banu, orain aberatsak izango ginateke familiakook. Baina bueno, diru hau ere ondo datorkigu, umea izan berri dugu-eta.

Eta sari potoloari dagokionez, badakizu nori egokitu zaion?

Bai. Alberto Etxaberi suertatu zaio. Promes egin du bazkari handia egingo duela eta Ohorezko Mailako taldekook gonbidatuko gaituztela. Bestela, Albertok esan du bere lanarekin jarraituko duela. Baina gauza bat da berak zer esaten duen, eta beste bat emakumeak buruan zer duen. Antza denez, auto bat erosi nahi du eta orain daukana alabari eman. Horretaz gain, haren ametsa beti izan omen da Cadizen etxe bat erostea, baina, hori familian konpondu beharko...

Diru gehiegi ez bada ere, pentsatuta al duzu zer egingo duzun diruarekin?

Dirua bada ere, ez pentsa diru asko denik.

Nik esaten dudan moduan

“Zapaterok kendu zigutena, loteriak ordainduko du”. Izan ere, “txeke-bebe” delakoaren ordeko erabiliko dut. Gehienbat, fardelak erosteko, hain zuzen ere. Hala ere, emazteak proposatu zidan 2 hilabeteko eszedentzia hartzea umearekin egoteko. Agian bidaia bat egingo nukeen, baina orain, umea izan dugu, beraz, etxean geratuko eta fardelak erosiko ditudalakoa nago.

Loterian jokatzeari gustatzen al zaizu?

Gehiagotan jokatu duzu hemendik aurrera?

Ez pentsa loteriazalea naizen. Ez, ez naiz. Pentsa aita esan zidana (errieta egin zidan eta guzti!):

“inoiz ez duzu jokutzen eta zein eta zozketa berezia suertatu zaizu!”...

Hemendik aurrera? Batek daki. Badakizue zer esan ohi den: zortearen bila ez, suertea bera da zure bila doana.

Hurrengo zozketa berezia Gabonetarakoa da. Izan duzun zortea ikusita, seguru gaude ez duzula txartelik erosiko, ezta? kar, kar, kar...

Ba normalean, Gabonetako Sarian jokutzen dut. 10 txartela hartu ohi dut; eta oraingoan ere, hartuko ditut. Imajinatu berriro Etxebarrin suertatzen dela, eta nik txartelik gabe...! Bai zera!

Gure Euskaltegi Txikia

Historia eta zenbait datu

Etxebarriko Euskaltegiak 21 urte darama euskara hedatzen gure herrian zehar. 1990. urtetik hain zuzen ere. Lehenengo 3 urteetan Basauriko Udalaren menpe zegoen euskaltegia; izan ere, bertatik etortzen ziren zenbait irakasle Etxebarriko jendea euskalduntzera. Herriarentzat erakargarria izan zenez, Udalak berak kudeatzea erabaki zuten. Hori 1993. urtean izan zen.



2005ean egoera aldatu egin zen, eta gaur egun Ulibarri Euskaltegiak hartu du ikastaro guztiak hartzeko ardura. 1998. urtean Etxebarriko Euskaltegiko lehenengo aldizkaria argitaratu zen ZEBARRI izena zuena; gaur egun bezala. Hasieratik, euskaltegia Bekosolo parkeko txalet horian dago, nahiz eta Kultur Etxean, Soinuzalen CIMEn eta Kukulagako eskolan ere klaseak ematen dituzten. Urtero, 200 ikasle inguru pasatzen da euskaltegitik.

Euskara ikasi bai, baina nola?

Euskara ikasteko bi aukera ditugu:

Alde batetik, presentziazko klase bidez. Kasu honetan bi posibilitate ditugu. Bata, egunero bi orduz (astelehenetik ostiralera). Bestea, berriz, bi ordu eta erdi eta horrela (guk bezala) ostiralak libre!!!

Bestetik, BOGA sistema dugu. Zer da, ba, Boga? Klasera etortzeko astirik ez daukateneke egin dezakete. Gainera, bi aukera dago. Lehenengoa, astean bi aldiz etortzea (bata tutorearekin egoteko eta bestea talde batekin). Bigarrena, bi astean behin tutorearekin bakarrik egotea, eta astero zure mailako talde batekin.

Talde hauetaz gain, ikastaro bereziak ere badaude. Hona hemen nabarmen-

Euskaltegiaren aspaldiko argazki bat, euskaltegia izan baino lehenagokoa



enak: guraso taldeak, jubilatuentzako taldea eta ume etorkinei zuzendutakoa. Horregatik guztiagatik, oztoporik ez dago Etxe-barrin ikasteko.

Berrikuntza eta eginbeharrak

Urteen poderioz euskaltegian hainbat berrikuntza ikusi ahal izan ditugu. Adibidez, aurtengo udan hain zuzen ere, euskaltegiaren hormak margotu zituzten. Ezin ahaztu, orain hiru urte kanpoko hormak ere margotu zituztela. Horretaz gain, aurtan euskaltegira teknologia berriak ailegatu dira eta, hala, ikasgela batean ordenagailu berri bat ipiniko dute, edo asmoa behintzat hori dela esan digute. Amaitzeko, gustatuko litzaiguke proposamen batzuk aipatzea:

- Berogailua aldatzea, geletan baino ez dagoelako berogailu zaharra
-
- Klaseetan zarata handia dagoenez, komenigarria izango litzateke leihoak aldatzea.
- Klasea emateko tresnak berritzea. VHS klasean ikusteak min egiten digu.



Gaur egungo itxura, eta gaur egungo ikasleak



Gure Herriaren Soinu Banda

Etxebarrin musika gustuko duten pertsona talde bat dago.

Astero biltzen dira; entseguak egiten dituzte musikazaletasunaz elkarren artean gozatzeko. Talde hori Etxebarriko abesbatza da, hain zuzen.

Abesbatzari buruz gehiago jakin nahi dugu, horregatik, gaur gurekin Eduardo Pérez, abesbatzako presidentea dago.

Nola deitzen da abesbatza?

Etxebarriko Donestebe Abesbatza deitzen da.

Noiz hasi zineten talde honetan?

Laurogeita hamargarren hamarkadan sortu zen abesbatza. Abesbatza elizan hasi zen. Parrokiako abesbatza zen. Etxebarriko gazteei ideia bururatu zitzairen eta Jesús Honaren laguntzarekin (Etxebarriko apaiz ohia) abesbatza sortu zen. Etxebarriko emakumeak, eta gero gizonak abesbatzan pixkanaka-pixkanaka sartu ziren. 2000-2001 aurretik Abesbatz Federazioan sartu ginen.

Abesbatza sortu baino lehen, lagunak zineten?

Gutariko %80 Etxebarrikoak gara betidanik.

Aurretik beste abesbatzaren batean abesten zenuten?

Gehienak ez gara beste abesbatzaren batean egon, baina kide batzuek 40 edo 50. hamarkadako abesbatza batean parte hartu zuten. Orain kide horiek ez daude abesbatzan, oso zaharrak direlako.

Zenbat abeslari zarete?

Hamazortzi gara, 7 gizon eta 12 emakume.



Non egiten dituzue entseguak?

Soinuzaleen egoitzan, Bekosolo parkean dago, txalet urdinean. Ordutegia hau da: asteazken eta ostegunean 8etatik 10etara.

Zer nolako abestiak abesten dituzue?

Denetarik, baina batez ere Mozart eta Bachen musika, Benito Lertxundi eta Xabier Leteren abestiak ere, eta gainera betiko Euskal musika. Euskaraz, gaztelaniaz, alemanez, suedieraz... abesten dugu.

Lehiaketaren batean parte hartu duzue?

Gabon-kanten lehiaketa irabazi ge-

nuen La Peñan. Orain BAEn (Bizkaiko abesbatzen elkarte) gaude. Udaberriro BAEk programazio berezia antolatzen du eta guk parte hartzen dugu, eta beste herrietan kantatzen dugu.

Kalean ere abesten duzue? Noiz?

Bai, gabonetan gabon-kantak abesten ditugu, normalean Etxebarriko elizan. Udan, uztaillean, Etxebarriko jaietan ere abesten dugu.

Kide berriak onartzen dituzue?

Bai, jendea behar dugu, batez ere, gizonak. Bi gauza bakarrik eskatzen ditugu: belarri ona edukitzea eta abesten jakitea.

Etxe Berdeak



Aurten udazkena berdea da. Gero eta gehiagotan entzuten dugu gure ingurumena zaindu behar dugula. Izan ere, Etxebarrik Nerbio-Ibaizabaleko udaltaldearekin batera "etxe berdeak" ekimena antolatu du. Besteak beste hiru tailer eskaintzen dituzte, aholku erabilgarriak emanaz. hain zuzen ere:

- a) banakako aholkularitza
- b) etxean aurrezteko sorta ekologikoa
- c) etxeko kontsumoen azterketa



Guk mundu hobe batean bizi nahi dugu? Zer egin dugu gure mundua hobetzeko? Orain 3 tailer horiek dituz eskura. Anima zaitetz eta parte hartu. Ondo pasatzeaz gain, helburu hauek lortuko dituzu:

- 1) Ura, elektrizitate eta gasaren fakturan nabarituko duzu. Hau pagotxa!!! Aurreztutakoarekin kriston jan-edana egin dezakezu Ortzi jatetxean.
- 2) Klima aldaketa geldiaraztea. Horrela datorren urteko uztailean ondartzara joango gara, ez aurten bezala.
- 3) Zure seme-alabek, baldin badaukazu, bestela zure ilobek, eskertuko dizute.

Informazio gehiago lortu nahi izanez
gero, hona hemen webgunea:
www.ut21.org

musika



ENAREN GEOGRAFIA (RAFA RUEDA)

Mungiakoa da Rafa Rueda, eta urteak eman zituen PI L T taldean. Taldearekin metaletik hurbil zegoen musika egiten bazuen ere, bakkarkako ibilbidean pop estilotik hurbilago mugitu da, musika lasaiagoa eta melodikoagoa eginez. Enaren Geografia hau Rafa Rueda izenarekin grabatzen duen laugarrena da. Kea, Saredun Eskua eta Zuhaitz Okerretan Gora Noa etorri ziren aurretik. Abeslariaren arabera, enarekin gertatzen dena gertatzen zaio gizakiari: urtez urte aldatuz goaz, eta musikalki ere hori adierazi nahi du, disko

honetan bere etengabeko eboluzioa islatzen dela, alegia. Diskoaren ekoizpena Ruedak berak egin du eta, bitxikeria gisa, dendetan ez du salgai jarriko. Bere kontzertuan soilik lortu ahal izango da.



MARA-MARA (IGOR ARZUAGA & LUIS VIL)


Elurra bezala, Mara-mara etorri da bikote hau. Orain arte, bakoitzak bere aldetik egin du ibilbidea. Oraingo honetan, Tom Waits, Nick Cave, Anari edo Pascal Comeladeren eraginak hartuta, elkarlanean kantu bilduma eder bat osatu dute Soraluezko Gaztelupeko Hotsak ziguarentzat. Kontzertuak eskaintzen ere laster hasiko dira.



JUPITER JON (PLEISTOZENOKO ASTELEHENAK)

Musika munduan urteak daramatzaten lau kide elkartu ziren duela zenbait urte. Lisabö, Akauzazte eta Mar De Cristal taldeetan ibiliak ziren, baina talde horiek alde batera utzi Caligula izenarekin hasi ziren kontzertu gutxi batzuk ematen. Orain, erreperitorio osatuagoarekin eta formazioa sendotu eta gero Jupiter Jon izena hartu eta bIDEhUTS ziligi independentearekin eman dute argitara lehenengo lan luzea. CDan eta biniloan argitaratu dute, diskoetxearen ohitura den bezala.


literatura



TWIST
HARKAITZ CANO


Soto eta Zeberio bahitu, torturatu, hil eta desagerrarazi egin zituzten. Diego Lazkano idazleak gogoan betiko txertaturik daramatza bi lagunak, ezin ditu oroimenetik uxatu, bi itzal haietatik elikatzen ari da ho-geitaka urtetan, Soto eta Zeberioaren ordeztu bizi ote den zalantzarekin, haien ordeztu bizitzea balitz bezala bere erantzukizuna.

Errua, maitasuna, traizioa, sexua, indarkeria, lotsa, justizia, erre-dentzioa, usurpazioa, antzezpena... asko dira TWIST nobelako har-riak, baina denen gainetik nagusitzen da adiskidetasunari egindako kantua.



UDALBATZA BAHITUAREN KASU POLLITA
KARLOS LINAZASORO

T.ko udalbatza eratzen den egun berean, alkate eta zinegotzi berri-ak beren karguaren zina egiten ari direnean, horra non hartzenduen plaza gizatalde arriskutsu batek. Armaturik datoz, haserre datoz. Zer nahi dute? Ez dakigu, baina bahiturik daukate udaletxea, eta barruan dauden guztiak.



AUSPOA BILDUMA OSOA, ON-LINE

Liburu elektronikoa baduzu eta euskararen harribitxi bat doan es-
kuratu nahi baduzu, aukera ederra duzu orain Euskaltzaindiak
bere web gunean Auspoa bilduma osoa deskargatzeko moduan
jarri baitu. Hainbat liburu argitaratu zituen Antonio Zavala euskalt-
zain oso zenak XX. mendean. Euskara ezin garbiagoan idatzitako is-
torioak biltzen ditu, biografiak, pasadizoak, bertsoak. Oso gozagarria.

Liburuak eskuratzeko ibilbide hau egin behar duzu: www.euskaltzaindia.net /
gero **Hizkuntza Baliabideak** atalean sartu / gero **Literatura** atalean / **Auspoa**

zinema


URTE BERRI ON, AMONA



desegituraketa ditu hizpide.

antzerkia

Arra Arraroa



Zer da gizona izatea? Gizon batek bera barneak arakatuko ditu galdera horri erantzun nahaian, bere eguneroko bizitzan “gizon” izan nahi horretan jasandako presioak eta ondorioz sortutako konplexu eta beldurrak azaleratu nahian. Umorez, sentiberata-suez, grinaz.

2011ko Poltsikoko Antzerki Sorkuntzaren beka jaso du.

Morritson eta Gartzia: Kultoko Antzezlan



Hau helduentzako komedia bat da, umorezko antzerki argumentu-duna. Zuzenean jotako musikarekin eta erritmo biziarekin. Pertsonai berezi, original eta barregarri bi hauen bidez, eta umore eta ironia bereziarekin, elkarbizitza, elkarlana, erlazioak, adiskidetasuna eta maitasuna, etxebizitzaren arazoaren koktelontzian nahastu egiten dira, antzezlan barregarri honetan. Cafe Bilbao-k antolatzen duen Antzerki Gidoien lehiaketaren VI. Edizioko lehenengo saria eskuratu zuten.

BIZKAIERAREN TXOKOA

ZEBARRI aldizkariaren aurreko alean gure euskalkiaren hainbat ezaugarri azaldu geunskizuen. Ale honetan be beste batzuk aitatuko doguz.

ERAKUSLEAK

Zalantza barik, bizkaieraz **ha** erakuslea daukagu bereziena, gainerako euskalkietan **hura** esaten da eta. NORK kasuan **harek** esaten dogu, **hark** esan barik:

Ikusten dozu etxe ha?

Pluralak be ezbardinak dira:

Honeek (hauek) Horreek (horiek) Hareek (haiek)

Pluralak deklinatukeran:

Honeei / horreei / hareei	/	Honeen / horreen / hareen
Honeekaz / horreekaz / hareekaz	/	Honeetan / horreetan / hareetan

...eta holantxe kasu guztietan.

Erakusleak indartuteko: **-xe**

Hauxe / horixe / haxe

Eta bihurkariak:

Bera / berbera / eurok / eurak eta kidekoak.

ADITZA

Hain errebesa suertatzen jakun gramatikaren atal honi jagokonez, badago jendea bizkaieraz errazagoa dala pentsetan dauena. Emon gainbegiratu bat eta esango deuskuzue!

IZAN

NAZ	NINTZAN
DA	ZAN
GARA	GINAN
ZARA	ZINAN
ZARIE	ZINIEN
DIRA	ZIRAN

EGON

NAGO	NENGOAN
DAGO	EGOAN
GAGOZ	GENGOZAN
ZAGOZ	ZENGOZAN
ZAGOZE	ZENGOZEN
DAGOZ	EGOZAN

EDUKI

DAUKAT
DAUKA
DAUKAGU
DAUKAZU
DAUKAZUE
DAUKIE

NEUKAN
EUKAN
GEUNKAN
ZEUNKAN
ZEUNKEN
EUKIEN

• Bizkaieraz plurala egiteko –z erabilten dogu:

DAUKADAZ

NEUKAZAN

UKAN

DOT
DAU
DOGU
DOZU
DOZUE
DABE

NEBAN
EBAN
GENDUAN
ZENDUAN
ZENDUEN
EBEN

• Bizkaieraz plurala egiteko –z erabilten dogu:

DODAZ

NEBAZAN

Hementxe itxi behar dogu oraingoz! Hurrengoan, gehiago!

Animau eta hurreratu zaiteze bizkaierara!

HITZEN BILTOKI

Etxean baditugu hainbat liburu mota, kolore eta tamaina askotarikoak, eta horien artean hiztegiak ere baditugu. Etxe guztietan badago gutxienez hiztegi bat. Ondo hitz egin arren, ondo irakurri arren eta hitzak ondo ulertu arren hiztegiak behar ditugu. Hizkuntza bateko hitzen bat ulertzen ez dugunean hiztegiara jotzen dugu kontsultatzera. Horretarako dira, hain zuzen ere, liburu horiek: hitzak kontsultatzeko eta haiei buruzko informazioa jasotzeko.

Hiztegi guztiak ez dira berdinak; badaude zenbait mota eta tamainakoak eta, gure zalantza edo jakin-mina zein den, batera edo bestera joko dugu argitu ahal izateko; hortaz, normala da etxe askotan hiztegi bat baino gehiago izatea.


Badira hiztegi elebakarrak, hitzen esanahia hizkuntza berean azaltzen dituztenak. Elebidunek aldiz, hizkuntza batetik bestera itzultzen dute hitza, honela, adibidez: euskara-gaztelania hiztegietan, euskaraz bilaturiko hitzaren ondoan gazteleraazko ordezkoa agertuko da.

Dialektoak azaltzen dituzten hiztegietan, hizkuntza baten hitzak lurraldearen arabera nola esaten diren azaltzen da. Euskarari, adibidez, euskalkiak ditugu eta mota horretako hiztegiei esker jakin dezakegu nolako den herri bakoitzeko euskararen aldaera.

Hiztegi teknikoak ere badira, gai edo zientzia zehatz bati buruzko hitzak biltzen dituztenak.

Halaber, hiztegi entziklopedikoak ditugu, hitzak azaltzeaz gain pertsonaia historikoak edota gertaerak sakonki aztertzen dituztenak. Azken batean giza ezagutza handitzea dute helburu.

Horietaz guztiez gain badira beste hiztegi mota batzuk, hain arruntak ez direnak: hala nola, ideologikoak, etimologikoak, historikoak, alderantzizkoak (hitzak alfabetikoki ordenatuta dituzte baina azken letratik hasita)...



Lehen hiztegiak XVI. mende inguruan agertu omen ziren. Elebakarrak ziren, hitzen esanahia azaltzen dituzten horietakoa. Euskal Herrian 1562an, Nicolao Landuchio italiarrak Gasteizen idatzi zuen euskarazko lehen hiztegi handia, «*Dictionarium linguae cantabrigiae*».

Baina garaiak aldatuz doaz, eta hiztegiak ere bai. Gaur egun hiztegiek liburu potoloak izateari utzi diote ia eta modernizatuz joan dira. Badira, eta beti izango dira, paperezko hiztegiak, baina azken urteotan ugaltzen dira interneteko sarean dauden hiztegiak. Areago, internet hiztegi handi bat bihurtu da, bertan denetarik bila daitekeela amen batean. Sakelako telefonoek ere izan dezakete hiztegia barruan, eta ondorioz edonon gaudela egin ditzakegu bilaketak.

Baina esan bezala, paperezko hiztegiak ez dira inoiz desagertuko eta hona ekarri dugu Zebarrri aldizkariko irakurleentzako paperezko zenbait hiztegiaren inguruko gomendioak. Lagungarri izan dakizkizuen espero dugu.



Elhuyar hiztegia: *Euskara-gaztelania / Gaztelania-euskara*

Hiztegi elebiduna da. 88.000 sarrera inguru ditu. Aditzen taulak eta bestelako gramatika azalpen ditu. Hiztegiak erabiliak da. 46 € inguru kostatzen da. 2006an eguneratu zuten.



Adorez 11 hiztegia: *Euskara-gaztelania / Gaztelania-euskara*

Elebiduna ere, 90.000 sarreratik gora. Gramatika-azalpenez gain euskarazko eta gaztelaniazko esapideak biltzen ditu. 2009an eguneratua. 45 € balio du.



Morris student plus hiztegia: *Euskara-ingeles / Ingles-euskara*

Hiztegi elebiduna, ingelesezko eta euskarazko ikasleentzat oso egokia. 1200 orrialde inguru ditu. Prezioa 50 €-koa da.



Elhuyar hiztegia: *Euskara-ingeles / Ingles-euskara*

Bada beste ingelesezko hiztegi bat, Elhuyarrena, 34.000 sarrera dituen 800 orrialdetan. 23 € inguru balio du.



Elkar Hiztegi Entziklopedikoa:

Euskarazko entziklopedia. 75.000 artikulua biltzen ditu, 50.000 sarrera-lexiko eta 7.000 azpisarrera. 80 € balio du.



Sinonimoen kutxa:

Sinonimo eta antonimoen hiztegia da. Lexikoa aberasten eta hizkuntzaren eza-gutzan sakontzen lagunduko digun hiztegia da. Esaterako, iparraldean edo hegoaldean erabiltzen diren zehazten da. 19,50 euroren truke lor daiteke. El-huyarrek argitara eman zuen 2010ean.



Adorez 8:

Beste sinonimoen hiztegi bat, antonimoduna hau ere. Idazlanak egiten ditugunean erabiltzeko oso gokia. 28 €-ren bueltan eros dezakezu.



Labayru hiztegia:

Bizkaiera eta batua uztarturik – euskara-gaztelania
Bizkaierazko berbak txertatzen dituen hiztegi bakarrenetariko bat, 31,20 euroan.



Euskal hiztegia:

Euskarazko hiztegi elebakarra da. Hitzen definizioa emateaz gain hitzaren lehenengo agerpen-urtea agertzen da. Adibide errealez hornitua dator Ibon Sarasolak sortu eta 2007an berak eguneratu zuen hiztegi hau.



Eta amaitzeko Hiztegi batua:

Liburuxka honetan Euskaltzaindiak onartutako hitz guztiak zerrendatu zituen. Ez du hitzen definizioa ematen, hitzen zerrenda hutsa baita, baina hemen begiratzu jakin dezakegu Euskaltzaindiak bilatzen ari garen hitza ontzat ematen duen ala ez. 2010ean eguneratu zuten azken aldiz. 25 € inguru balio du.

Batarekin edo bestearekin, baina ez zaitez ezjakintasunean erori.

Denok dakigunez Gabonak gerturatzen ari dira. Urte osoan ondo portatu garenez Olentzerok eskatutako guztia ekartzea espero dugu.

Nor da Olentzero? Norekin eta non bizi da?

Olentzerok haurren gutunak jasotzen ditu abenduaren 24a baino lehen eta gero umeei opariak banatzeaz arduratzen da. Olentzero euskal mendietan bizi zen jentil bat da, baikorra eta lasaia. Gau batean, zerumugan izar handi bat ikusi zuen eta zer ote zen galdetu zien zaharrenei. Agureek erantzun zioten neguaren hasiera iragartzen zuela izar hark, horregatik, hasieran “negua heldu dala” esaten zuen kantak, eta kristautasunaren eraginez “jesus jaio zala” abesten dugu.



Olentzeroren itxura tokiarren arabera da. Gaur egun, bere itxura artzain edo ikazkina bezalakoa da. Lehen gure Olentzero bakarrik bizi zen baina azken urteotan, neskalgun batekin agertzen da, Mari Domingirekin.

Mungiako Izenaduba basoan, Olentzeroren etxea dago. Hantxe ibilbide magikoa egin

ahal izango da; horrez gain, filmak, jokoak, tailerrak eta hainbat gauza ikusteko aukera dago.

Olentzeroren baserria (Landetxo goikoa) Bizkaiko baserririk zaharrena da eta Euskal Herriko zaharrenetarikoa.

Hona hemen web gune interesgarri batzuk:
www.olentzero.com www.izenaduba.com

Olentzeroren
abestia:

*Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duanian,
negua heldu dala
Jesus jaio dala
lasterka etorri da,
berri ematera.*

*Horra horra,
gure olentzero!
pipa hortzetan duela,
eserita dago. Kapoiak
ere baditu,
arraultzatxuekin,
bihar meriendatzeko
botila ardoakin. (bis)*

*Olentzero, Buru handia,
entendimentuz jantzia
Bart arratsean
edan omen du,
hamar arroko zahagia.
hau urde tripa haundia!*



NEGURAKO AHOLKUAK

1) Autoaren haizetako izotza kendu:

Ura (1/4) eta ozpina (3/4) nahastu behar dituzu. Gauean haizetakoa busti ezazu nahaste honekin eta hurrengo egunean ez duzu izotzik edukiko.

2) Zain ezazu zure eztarria!

Otsailaren 3an San Blas kordoia bedeinka ezazu eta 9 egunez jantzi ezazu. Azken egunean erre ezazu eta horrek eztarria babestu egiten dizu.



3) Ur- tutuak lehertzea saihestu:

Neguan etxean ez bazaude uraren ixteko giltza itxi behar duzu eta gero ur- tutuak hustu behar dituzu. Ixteko giltza itxita utzi berriro erabili arte.

4) Sukarra jaisteko:

Moztu tipula xerra batzuk, hauek lurrean ipini, oinutsik zapaldu eta geratu horrela ordu erdi.

Ume txikiak badauzkazu tipula xerrak galtzerdien barruan sartu eta umeari jantzi.

5) Pitzatutako azala:


Etxean egindako mozorroa egiteko osagai hauek behar dituzu:

- Ezti koilarakadatxo bat
- Irin koilarakadatxo bat
- Oliba olio koilarakadatxo bat
- Arrautza baten gorringoa

Ontzi batean osagai guztiak nahastu, eta nahaste hau aurpegian eta eskuetan eman. Ordu erdi itxaron eta gero, garbitu ur epelarekin. Azal zoragarria eratuko zaizu eta merke-merke.

6) Neguan landareak hiltzen zaizkizu?

Gauetz ureztatzea saihestu, izan ere, ura izoztu egingo da. Goizez ureztatu behar dituzu eta hostoak ureztatu beharrean, ura platertxoan bota edo lurrean bertan.



BITXIKERIAK

BIZKAIA ETA OTSOAK

Gaur egun oso otso gutxi dago Bizkaian ; orain dela 300 urte, ordea, asko zegoen. Garai hartan Oiz eta Sollube mendietan zuhaitz eta landare asko zegoen eta otsoetzat bizileku egokia zen. Bizkaiko herrietan otsoekin zerikisua duten hitzak daude: Otxaran, Otxoa...

Bilbotik hurbil dagoen auzo batek Otxarkoaga izena du, otsoen lekua omen zen. Bertan Matalobos izeneko iturri ospetsua dago. Leku horretan Ganguren menditik jaisten zirenean, otsoek ehiztari asko hil omen zituzten, eta hortik izena.



Bilboko ezkutuak bi otso dauzka.

BILBOKO URA

Bilboko Uraren jatorria hoarropuzkeria bat izan zen. Antza denez, Bilboko Athletic taldeak Donostiako Errealaren kontra jokatu zuen partida batean hasi zen dena.

Bilbotarrek partida hura irabazi ondoren, Donostiako alde zaherreko Nicolás jatetxera joan ziren garaipena ospatzera. Bilbotarrek Bilboko ura eskatu zuten, baina Donostian ez zeukaten halakorik. Zebitzariak zein zen galdetu zietenean, bilbotarrek Bilbon cavari Bilboko Ura deitzen ziotela erantzun zioten; ura bezala sartzen baitzen. Zerbitariak upaletegian zuten cavarik onena atera zien.

Kontua ordaintzerakoan cava ez ziotela kobratu konturatu ziren. Zerbitzariari esan zieten, hark Donostian ez zutela ura kobratzen erantzun zien.



Etiketak dio berotzen duen ur hotz bakarra dela



Lezama-legizamon errota



Arrigorriagako armariak
ere omenaldia
egiten die otsoei



Beti zapaltzen dugun
arren Bilbotarren ikurra da

ETXEBARRI IZENA

Etxebarriko Lehenengo izena Etxebarriko Bidea izan zen. Castillatik Bermeora zihoan merkatalbidean zegoen. XI.mendean Etxebarri San Esteban elizatea izan zen.

2005.urtean izenez aldatu, eta Echebarri izena hartu zuen. Bizkaiko Jaurreriak mendi bozinerok zeuzkan: Oiz, Sollube, Gorbea, Ganekogorta, eta Koltza. Mendi hauetatik seinale akustikoak eta kezkoak egiten ziren, herritarrek Gernikako Batzatzar Nagusietara deitzeko. Etxebarrik 37. jarlekua zuen. Garai horretan Leguizamonetarrek zeukaten poderea. Horren seinale, gaur egun jatexea den Leguizamon Jauregia eta egun itxita dagoen Lezama-Legizamoneko Errota.

ARRIGORRIAGA IZENA

Arrigorriaga izenari buruzko bi bertsio ezagutzen ditugu.

Lehenengoak, erromantikoenak, esaten du 870. eta 800.urtean gutxi gorabehera Padura izeneko leku batean Bataila bat egon zela. Garai horretan Padura egungo Arriagorriaga zen. Bataila hartan Bizkaikorek Leonkoei erabazi zieten. Bataila oso odoltsua izan zen, eta hortik Arrigorriaga izena; harri gorrien lekua hain zuzen ere.

Bigarrenak esaten du Ollargan mendiko antzinako burdin-betengatik datorrela Arrigorriaga izena.

BILBOKO BALDOSA

Bilboko baldosa Bilboko ikurra da. Hirian 66milioi baldosa baino gehiago dago eta artero 650.000 baldosa aldatzen dira. Uste da 20. eta 30.hamarkadakoak direla. Lehenengoak Eduardo Saenz Venturik egin omen zituen Harri lantegian. Lantegi hori San Mames kalean zegoen. Porlan, burdina eta harea zeukaten, baldosa gogorra zen eta ez zuen laprast egiten. Euri ura husteko forma daukate, baina arazo txiki bat ere bai: ez daude lurrera ondo itsasita eta zipristinekin arropa zikintzen dute. Abesti bat ere atera diote eta forma bereko pastel zein erlojak daude.



KAPRIKORNIO

(Abenduaren 21etik Urtarrilaren 20ra)



Dirua: ez erosi gauza absurdorik eta gorde dirua gauza garrantzitsuagoetarako.

Maitasuna: egia da zure bikotea oso garrantzitsua dela, baina ez zaitez zure lagunez ahaztu.

Osasuna: utzi depresioa alde batera eta kalera ateratu!

Asteko eguna: astelehena.

AKUARIO

(Urtarrilaren 21etik Otsailaren 20ra)



Dirua: kutxa beteta daukazu, baina tabakoak hustuko du.

Maitasuna: bikotearekin garai ona pasatzen ari zara eta horrela jarraituko duzu.

Osasuna: tabakoa utzi, birikak kokoteraino daude eta.

Asteko eguna: ostirala.

PISZIS

(Otsailaren 21etik Martxoaren 20ra)



Dirua: ez eskatu mailegurik.

Maitasuna: aukera handia maitasun abentura bat edukitzeko.

Osasuna: belaunak ahul dituzu. Kirola egin behar duzu.

Asteko eguna: osteguna.

ARIES

(Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)



Dirua: herentzia handia jasoko duzu.

Maitasuna: kanpoan dagoena ikusita, hobe duzu daukazuarekin geratu.

Osasuna: kontuz! hurrengo hilabeteetan gripe epidemia bat egongo da.

Asteko eguna: larunbata.

TAURO

(Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)



Dirua: larrialdi bat edukiko duzu, beraz, hasi aurrezten.

Maitasuna: maitekorragoa ez bazara, ez zaizu inor hurbilduko.

Osasuna: kontuz izotzarekin asko irristatzen du eta!.

Asteko eguna: asteartea.

GEMINIS

(Maiatzaren 21etik Ekainaren 20ra)



Dirua: zure kontuko zenbaki gorriak amaituko dira.

Maitasuna: garai ona zu eta zure bikotea elkarrekin egoteko.

Osasuna: ez duzu problemarik edukiko osasunarekin.

Asteko eguna: igandea.

KANTZER

(Ekainaren 21etik Uztailaren 20ra)



Dirua: zure esfortzuarekin diru gehiago lortuko duzu.

Maitasuna: entzun gehiago besteei eta ez izan hain burugogorra.

Osasuna: gehiago deskantsatu behar duzu.

Asteko eguna: astelehena.

LEO

(Uztailaren 21etik Abuztuaren 20ra)



Dirua: gehiegi aurrezten duzu, noizean behin kapritxo bat eduki beharko zenuke.

Maitasuna: laster konturatuko zara neska edo mutil hori pertsona txarra dela.

Osasuna: pilates egitea ona da. Animatu!.

Asteko eguna: asteazkena.

VIRGO

(Abuztuaren 21etik Irailaren 20ra)



Dirua: zure gurasoak kokoteraino daude zure zorrak ordaintzen.

Maitasuna: bizitza mota horrekin jarraitzen baduzu, bikoteak gutxi iraungo dizu.

Osasuna: zaindu zure elikadura. Gauza garbiak jan.

Asteko eguna: osteguna.

LIBRA

(Irailaren 21etik Urriaren 20ra)



Dirua: erosi Gabonetako loteria, agian zorte ona edukiko duzu.

Maitasuna: oporretan bidaia bat egingo duzu eta hor norbaitek zure bihotza lapurtuko dizu.

Osasuna: zaindu zure eztarria, arazoak edukiko dituzu bestela.

Asteko eguna: igandea.

ESKORPIO

(Urriaren 21etik Azaroaren 20ra)



Dirua: zorte handia edukiko duzu diruarekin.

Maitasuna: zure lagunen bidez jende interesgarria ezagutuko duzu.

Osasuna: medikamentu gehiago hartzen baduzu zerbait gertatu ahal zaizu.

Asteko eguna: ostirala.

SAGITARIO

(Azaroaren 21etik Abenduaren 20ra)



Dirua: diru kontuan ondo zaude, baina jakin behar duzu diruak ez duela munda mugitzen.

Maitasuna: guztiekin ligatzeari utzi eta benetako bikote bat bilatu.

Osasuna: hipokondriakoa izateari utzi, katarroa 2 eguneko kontua besterik ez da!.

Asteko eguna: larunbata.

**ALBERJINIA BETEA****OSAGAI/AK:**

2 alberjina handi
500gr onddo
200gr hirugiharra
75gr irin
500ml esne

gatza
gatza xehea
oliba olio

PRESTAKUNTZA

Erdibitu alberjina, eta labean sartu 180 gradutara 20-30 minutuan.
Onddoak zatitu, eta zartaginean egin. Ondoren hirugiharra gehitu.
Alberjina labetik atera, hustu eta onddoekin nahastu.
Bexamelaren trikimailua: zartagin berean irina hautseztatu eta esnea isuri
pixkanaka- pixkanaka.
Jarraian alberjiniak bete, eta gaztarekin estali.
Gero, alberjiniak labean sartu eta gainerre, gorritu arte.
Bero zerbitzatu.

ERREBOILOA LABEAN**OSAGAI/AK:**

1kg erreboilo
4 patata
Tipula handia
Perrexil apur bat
2 baratxuri -ale

ardo zuri pixka bat
gatza
3 koilarakada oliba olio
ur pixka bat

PRESTAKUNTZA

Labea aurreberotu 180 gradutara.
Patata- eta tipula-xerra finak egin. Gatz pixka bat gehitu.
Ontzi batean ur pixka bat eta oliba olio pixka bat jarri. Ondoren, patata eta tipula
zabaldtu.
Erreboiloa patata eta tipularen gainean jarri.
Ardo zuria, perrexila eta baratxuria ondo nahasi, eta gero, erreboiloaren gainean
zabaldtu.
Labean sartu 15-20 minutuan.



GOXUA

OSAGAIAK:

• BIZKOTXOA:

5 arrautza
150gr azukre
150gr irin

- ESNAGAIN HARROTUA:

16cl esnegain
25gr azukre

• PASTEL-KREMA:

¼ l esne
10gr azukre
50gr azukre
25gr irin
Kanela hautsa

- URAZUKREA:

10cl ur
2 arrautza

PRESTAKUNTZA:

Bizkotxoa egiteko, irabiatu ondo arrautzak eta azukrea. Gehitu irina, hautseztatu eta ondo nahasi. Isuri ore labeko erretiluan, eta ondo zabaldu. Sartu labeen 180 gradutara, 20 minutuan.


Urazukrea egiteko, irakin ura azukrearekin.

Pastel-krema egiteko, irakin 200cl esne. Nahasi 50cl esne, azukrea, irina eta arrautzak. Gero, gehitu esne irakinari, eta eragin berriro irakin arte. Utzi hozten .

Bitartean, harrotu esnegaina azukrearekin.

Bizkotxoa urazukrearekin busti.

Platereratzeko, bizkotxo zatiak egin. Esnegain harrotuaren gainean bizkotxoa eta pastel-krema jarri. Gero, hautseztatu azukrea eta kanela. Bukatzeko gainekoa erre.





Eta aurten... zer ekarriko digu Olentzerok?



BERTOKO PRODUKTUAK, JAKINA!

Produktu hauek guztiak oso ezagunak eta gozoak dira, baita preziatuak ere. Baina badakizue nongoak diren. Kokatu bakoitza bere jatorrian gezi baten bidez..

Animo!



Letra-zopa

Behean ematen dizkizugun pistak kontuan izanda, aurkitu Euskal Herriko 10 monumentu eta leku ezagunen izenak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

Bilbo erdian dago. Oso ospetsua da. Areatzaren aurrean dago, alde zaharraren ondoan, eta Nerbioi ibaiaren ondoan. Eraikinaren atzean tranbiaren geltokia dago. 1890.urtean inaguratu zen. Aste Nagusian Mari Jaia balkoira ateratzen da eta bertatik txupinazoa botatzen dute.

Kongreso jauregia da baina ez dago Bilbon. Gros auzoan dago. Zurriola hondartzaren atzean dago. Moneo da bere egilea. Irailean alfonbra gorria eta luzea ipintzen dute.

Bizkaian eta itsasaldean dago. Bermeo eta Bakioren artean dago. Ermita da, irlaren barruan dago. Eskailera asko dauzka, baina azkenean bere pasaia ederra da. Bertara turista asko joaten dira.

Gatikan dago. Erdi Arokoa da. Ez da Walt Disneyren filmetan agertzen, baina oso ederra da. Eraikinaren inguruan, palmondo eta zuhaitz exotiko asko daude

Lek hau Bilbon dago, eta oso ospetsua eta handia da. Jesusen Bihotzaren ondoan dago. Ez da eliza, baina igandeetan jende asko dago

Lauki zuzen txikiaren erdian dago. Altua eta sendoa da. Euskal Herriko ikurra da. Batzar Etxearen aurrean dago. Kanta polit bat ere badauka.

Animalia hau itsasoan bizi da, baina lehorrekoa da. Argiñanok bere lane-ko leihotik egunero ikusten du.


Mundu osoan ezagutzen dute. Orain ez da beltza, gorrixka baizik. Altua eta dotorea da. Erraldoi honek egunero ikusten du itsasontzien joan-etorria

Bilbon bizi da. Bere etxea oso ospetsua da. Bere aitaren izena Jeff Koons da. Oso altua eta potoloa da. Bere arropa loredua da.

Araban dago, hiri erdian dago, oso altua eta argala da. Burdinez eginda dago eta bere aita Giacometti artista da.



K	L	S	R	B	R	B	I	A	L	A	K	I	L	A
I	G	A	R	U	I	B	I	L	T	A	R	I	A	S
L	S	N	R	T	N	A	K	S	E	T	N	O	R	B
A	T	M	Z	R	S	K	U	P	U	P	P	Y	R	A
E	A	A	R	O	E	A	O	A	U	S	K	L	I	P
R	L	M	A	I	O	L	A	G	A	I	R	R	A	T
O	K	E	R	M	L	K	U	R	S	A	A	L	A	S
G	I	S	Z	U	B	I	E	S	E	K	I	A	G	I
G	E	R	N	I	K	A	K	O	A	R	B	O	L	A
E	O	E	X	T	A	G	U	L	E	T	Z	A	G	K
I	U	A	L	T	Z	A	L	I	K	O	X	I	N	L
A	U	G	A	S	O	K	A	I	R	A	T	E	G	I



etxebarriko euskaltegia

No te quedes atrás

Aurrea hartu



Maila guztiak

EGA

Hizkuntza eskakizunak

Guraso taldeak

Erretiratuak

BOGA

Ordenagailu bidezko autoikaskuntza

eta

Udalaren dirulaguntzak



Todos los niveles

EGA

Perfiles lingüísticos

Grupos de padres y madres

Jubilados/as

BOGA

Autoaprendizaje por ordenador

y

Con subvenciones del Ayuntamiento



Bekosolo parkea z/g

Etxe horia / Casa Amarilla

Tel/Fax 94 426 28 02

etxebarri@euskalnet.net



YLIBARRI
EUSKALTEGIA

Tel. 94 416 24 72